



MINISTÈRE
DE L'ÉDUCATION
NATIONALE

EBE BAS 1

SESSION 2018

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

**SECTION : LANGUES RÉGIONALES
BASQUE**

COMPOSITION ET TRADUCTION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

PROGRAMME 2018, NOTION DU PALIER 1 DES COLLEGES : PATRIMOINE CULTUREL ET HISTORIQUE.

OFIZIALENA

Oi laborari gaxua,
Hihaurek jaten arthua
Ogi eta ardu geñhatzen auherren asetzekua,
Halere hafñ haie maite nula artzañak otsua.

Artzaña bada beztitzen,
Josliak tü gomendatzen
Zaragollen alderki bata oihal hobez ezar dezen.
Halere higatüren dizü aitzinia beno lehen.

Dendaria berant jiten
Arratsen goizik ützültzen;
Eta mündiaren jorratzen arte hartan abüsatzten
Ezpeitü jaten diana hüllantzeko irabazten.

Menüser, maiasturia
Oi lan güti egilia!
Dena gaxki egin eta zurak dü estakuria!
Phasta zela adarrondotsü eta beta bühurria.

Eskalanpu egiliak
Ebasten tü materiak.
Zazpira sos balio dina saltzen beitü hamabia:
Ostatin jan hen saria eta etxen gosez familia.

Oi taharnari fidela!
Jüje ezpaliz igela!
Arraňak jakile har eta hek litzakie kundena,
Haien etxe lejitimua guri saltzen deikiela.

Errijent bat bada hiltzen,
Hark eztü prozesik üzten;
Huntarzünak beitütü harek heñ hun batetan ezarten:
Züntzürrin kuntrolatü eta phantzollin ipotekatzen.

Jaun aphezek etsortatzen
Karitate egin dezen.
Berek aldiz phakatü gabe hitz bat eztie erraiten;
Herriko praubik gosez eta haien ürhik erdollatzen.

Sarjant eta notariak
Oi! arnes nesesariak!
Haien elhe ülhün gezürrek nahasten gaiza txipiaik:
Ezta lagün hobiagorik bertan hüsteko etxiak.

Oraiko arotz gaztik
Gizun galant dira güzik:
Zaharren eskoletarik ez balira ikhasirik,
Atxeirü güti ezar eta egin espantü handirik.

(Oraiko) Soñularia
Ardüra dük egarria;
Soñü egiteko behar dük nuizetaik manhazalia,
Godaletaren hartzeko aldiz bethi prestik (dük) eskia.

Dantzariaren arhina!
Eztük ez bürian mina!
Zuñen adreki badabilan hara eta huna
Eta halere irus, agerbeitük lan egina.

Pierre TOPET ETCHAHUN, in Jean HARITSCHELHAR, *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, Euskaltzaindia, Bilbao 1970. (Hemen bertsio moldatua)

LOIOLAN

Ttipia da, bainan dena marbre xuriz apaindua, eta begikoa osoki. Bat-batean paretan thindatu hitz batzuek jotzen dauzkiset begiak: eskuaraz dute jakinarazten hau dela San Inazioren sor-etxea. Eta atsegin zait, atsegin handi, eskuaraz baitira. Doidoi, etxearen erakuslea eskuaraz mintzatu izan balitzaiku eskualduner, atzerritarrentzat idukiz erdara, orhoitzapen hobea baizik ez ginuken beiratu, hemen iragan minuta ezin-ahantzizkoez.

Jauregi aitzinean atzemaiten ditutene bideko lagunak, alde orotarat haserre dabiltzala, nere berriz ikustearaz etsituxea, erasiaka. Agertu nintzaieneko, hasperen batekin besoak hagatzen dituzte ortzalde, eta, berehala, komentutik athera gabe sartzen gira, zipuko gizaiduriaren gibeletik, arteka batean barna.

Bi urratsez helduak gira komentuaren erdiko athe-nausi zabalerat. Azpeitiaraino hedatzen den planaderari so egoiteko tirriak erretzen gitu, bainan nola utz Loiola, eskerrak bihurtu gabe holako aroa eta hoinbertze gauza ederren ikusteko zoriona eman dauzkigun Jainkoari.

Sartzen gira beraz goipularriak estaltzen duen kaperan; komentuko Jesuista eskolemaileek, ixtudiantek, bai eta auzoek hau bide dute, goizetan, beren othoitzetako toki. Bagaude behin ixil eta geure baitan sartuak; eta gero, orok gure begiak goiti. Ez luzaz haatik, ez baita zorigaitzez gain hartan miresteko deus handirik. Kapera biribil-biribila da, askitto nasaia, argitua izariz bere inguruko tenteen artean ohatzen dituen aldaretaraino, bainan egiaz arrunktkiegi duela gapeluak hesten, arroltze-kusku baten idurirat. Bertzerik ginaukan kanpotik Loiolako goipularria.

Laster itzuliak gira athe-aitzinerat. Mailadiaren hegian xutik elgar hunkitzen dugula, bagaude ittan bat Azpeitiaraino luzatzen den planaderari so. Zer ordoki ederra, erregebide leun beltz zabalak hausten duela erditsutarik! Zer xoko maitagarria Eskualdunentzat! Beren hauturala lerro-lerro ibil ditazke hemen, herritar saindua othoiztuz, kantatuz bi bulharrez haren laudorioak.

Gizon guti izan da luraren gainean harek bezenbat eta halako kharrarekin gizonez Jainkoaren hitza ezagutarazi nahi ukantzen; guti, harek bezalako sua piztu duenik laguntzara bildu zituenen bihotzetan; guti, halako lanak lurreko eskualde guzietan eginarazi dituenik bere xedeen arabera; nehor ez, bera bizi zeno bere erakaspenez langile bat argitu eta indartu duen nausirik, nola baitzuen egin harek bertze eskualdun bat: San Frances Javierekoa. Bi sainduen alderako beila-toki da, gerotzik, Loiola eskualdunentzat.

Jean ETCHEPARE, *Beribilez*. (1931). (Hemen bertsio moldatua)

ESKUARA ETA ESKUALDUNAK

Mila bat zortzi ehun eta
Lauetan hogoiean,
Bertsu berri hauk eman dire
Aire zahar batean;
Gure aitaso Kantabreak,
Lo baitaude lurpean.
Ez othe dire atzarriko,
Aire hau aditzean?

Mendi hegitik hasten banaiz
Khanta hunen khantatzen,
Oihan zokhotik, oiharzuna,
Zer dautak ihardesten?
Hobietarik aitasoak
Othe dire mintzatzen?
Zer haiteke, hi, oiharzuna.
Heien oihua baizen?

Gure aitaso kantabreak,
Mende zaharrenetan,
Gu orai gisa hedatuak
Alhor hautan beretan,
Anaiak ziren: «Guziak bat»,
Mendien bi aldetan:
Jainkoa xoilki zen errege,
Eskualdun etxoletan!

Nork ez dituzke gure aiten
Balentriak aditu?
Zelhaietako zonbat etsai
Hek ez zuten suntsitu
Semeak aita dik iduri,
Zeren nehork ez baitu
Bere herrian, egundaino,
Eskualduna garhaitu!

Larrun, Mundarrain, Altabizkar,
Zuen hegiz muthurrak,

Mihise batek hila gisa;
Gorde ditik elhurrak;
Larru baletza orai ere
Azaletik haitzurrak,
Ikhus gintzazkek agerian
Aita beren hezurrak!


Erreka zepho zilhoetan
Bizi bada belea,
Toki goretan arranoak
Eiten du ohatzea;
Hala du mendi bizkarretan
Eskualdunak Etxea,
Biek handizki dutelakotz
Maite libertatea!

Zer da liburu zaharrenek
Irakhasten dutena?
«Hurrunegitik heldu dela
Eskualdunen omena;
Ez dakitela noiztik duen
Eskuarak hastapena....».
Zeren Eskuara baita naski
Mintzoetan lehena?

Jakintsun batek, aditu dut,
Nonbait erran duela:
«Eskualdun izan baino lehen
Gu herdaldun ginela».
Ixilik ago ahal baduk!
To! Jakintsun ergela,
Ez erran guri arranoa
Beletik heldu dela!

Nola birundan arbolari
Dan segitzen itzala,
Bakhotxak hala sor-lekhua
Bethi maitha dezala!
Anaiak gaituk Eskualdunak,
Orai ere, oxala!
Jartzen bagine «Guziak bat»
Lehenago bezala!

« Piarres ADAME », Jean-Baptiste ELISSAMBURU (1882)
(Hemenbertsio modatua) .



FUENTERRABIA. - Barrio de la Marina

Hondarribiako Marina deitu auzoko argazki zaharra (datarik gabe).

TRADUCTION

VERSION

Foot-ball

Gure pilotaren itxura eta jokoaren eite guti edo aski badu eta ez du. Barnez huts, arroitzearren iduriko eta gizonaren burua baino handixagoko bat da hor derabilaten balona; eskuetan, besazpian atxikiz ereman hemendik harantxetara, zangoz ostikoka igor; elgarri ebats; hora berekin edo aitzinean deramatela, zoin alderdikoek hel bertzekoen zedarrietan harat. Lehertzeko jokoa da. Zalu eta azkar eta lerden behar du izan hortan ari denak; zango-besoetako zainez eta bularrez pizkor; oroz gainetik hatsa luze.

Itzulipurdi zonbeit gorabehera, xuti eta jo aitzina. Ez da behar minbera, ez gaitzikor, ukani ere ustegabez, ostiko edo muturreko zonbeit. Buruz oldarrean bularretara edo oinetakoz azzal-hezurrera jorik, erortzen denarentzat, hats bahi edo zangoa hautsirik, hanbat gaixtoago.

Jokoa joko, legeak hausten ez direno.

(Manex Hiriart-Urruti, *Eskualduna* 1913-4-11)

1. Comment avez-vous traduit *derabilaten* et *deramatela* ?
2. Que signifie *hanbat gaixtoago* ?

THEME

Elle envoya chercher un de ces gâteaux courts et dodus appelés Petites Madeleines qui semblent avoir été moulés dans la valve rainurée d'une coquille de Saint-Jacques. Et bientôt, machinalement, accablé par la morne journée et la perspective d'un triste lendemain, je portai à mes lèvres une cuillerée du thé où j'avais laissé s'amollir un morceau de madeleine. Mais à l'instant même où la gorgée mêlée des miettes du gâteau toucha mon palais, je tressaillis, attentif à ce qui se passait d'extraordinaire en moi. Un plaisir délicieux m'avait envahi, isolé, sans la notion de sa cause. Il m'avait aussitôt rendu les vicissitudes de la vie indifférentes, ses désastres inoffensifs, sa brièveté illusoire, de la même façon qu'opère l'amour, en me remplissant d'une essence précieuse : ou plutôt cette essence n'était pas en moi, elle était moi. J'avais cessé de me sentir médiocre, contingent, mortel.

(Marcel Proust, *Du côté de chez Swann* 1913)

1. Comment traduisez-vous *elle était moi* ?

INFORMATION AUX CANDIDATS

Vous trouverez ci-après les codes nécessaires vous permettant de compléter les rubriques figurant en en-tête de votre copie

Ces codes doivent être reportés sur chacune des copies que vous remettrez.

▪ Concours externe du CAPES de l'enseignement public :

Concours
E|B|E

Section/option
0|4|4|0|E

Epreuve
1|0|1

Matière
7|4|1|4

▪ Concours externe du CAFEP/CAPES de l'enseignement privé :

Concours
E|B|F

Section/option
0|4|4|0|E

Epreuve
1|0|1

Matière
7|4|1|4